

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Alderantziz irakurri



ARITZ GALARRAGA

Paul Valéryren hiriak izan baziren Marseillea, Niza, Genova, Rafael Chirbesenak izan ziren Istanbul, Venezia, Erroma, Alexandria, Kreta, noski Valentzia –“nonbaitekoa izateko oroimina”–. Mediterraneo bueltako hiriak guztiak, bere artikuluetako protagonista bilakatu zituenak. Ez alferrik, *Sobremesa* aldizkari gastronomikoan lan egin zuen Chirbesek hamabost urtez, eta denborarekin leku askotara iritsi arren, “inpresioa daukat bidaia guztiak balio izan didatela jatorrizko bidaia hobeki irakurtzeko”. Horri buruz ari da *Mediterráneos* liburua.

Baina, Mediterraneo buelta bakarrik ez, beste paraje batzuetara ere, Alpujarra, Viena, Laponia, eraman zuen lanak. Baita, nola ez, gastronomiaz ari baikara, Euskal Herrira ere. Erreportaje batean Arzak bisitatzen du –“askorentzat, jattetxe hori zapaltzea, kapritxo bat baino, helburu bat bilakatu da”–, eta jasotzen ditu errezeta batzuk, abakando entsalada epela, ozpinolio berotan erretako begihandia, gazta fresko tarta ahabiekin. Beste erreportaje batean, perretxiko bila abiatzen da, Gipuzkoa barnealdera, leku zehatzik aipatu gabe –lastima–: “Beasainen, gauak beste lekuetan baino pixka bat gehiago irauten du; zalan-tzarik gabe, Errezilen baino gehiago, non lanbroak ez duen galdu egunsentiaren hatz arrosakarek laztanduta altxatzeko ohitura, Homerok esan zuen bezala –nik baino askoz hobeki esan ere–”.

Bidaia oro barne bidaia dela esan bazuen inork, Chirbesek izan zuen horren berri: “Veneziara doan bidaiaria bere barnean izan uste duen horrekin elkartzera joaten da, eta, horregatik, hiri horretan, inork hatz erakusleaz San Markoseko zaldiak seinalatzen dituenean, halabeharrez, alderantziz irakurri behar da bere keinua: barruan duen eta besteek deskubritzen jakin ez duten paisaia seinalatzen ari da”. Chirbesek euskaldunoi buruz idatzi zuen, beraz, baina, alderantziz irakurriko bagenitu idatziok, auskalo zer esango liguketan Chirbesez beraz. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Ertzaintza

Salatu dute hurbiletik egin zuela tiro Ertzaintzak Reala-Alaves partida aurreko istiluetan. Joan den igande arratsaldean, Realaren eta Alavesen arteko derbia hasi aurretik gertatu ziren istiluak, Anoeta estadioaren kanpoaldean.

Langile borroka

Garaipen “historikoa” ospatu dute garbitzaileek. EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi du IMQ enpresak legeari iruzur eginez eta eskubide-abusuarekin kaleratu zituela bertako garbitzaileak urtarrilean, eta baldintza berberetan berriz ere onartzera kondenatu du IMQ.

UPNren krisia

Sergio Sayas eta Carlos García Adaneroak plataforma politiko berria aurkeztu dute Iruñean. Dagoeneko badu 631 herritarren sostengua, UPNko diputatu ohiek azaldu dutenez. Modu honetan argi ikusarazi da UPNren baitan sortu den zatiketa.